# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 4242

*EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 16koa, Kulturako sailburuordearena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2023-2025 aldirako dirulaguntzak emateko dena.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko martxoaren 22ko Aginduaren bidez (martxoaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 61. zk.), Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2023-2025 aldirako dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egin zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 9. artikuluaren arabera, 2023ko maiatzaren 2an amaitu zen.

Agindu horren 14. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea 2023ko ekainaren 27an bildu zen, eta, eskabideak baloratu ondoren, horiek emateari buruzko ebazpen-proposamena egin zuen, aginduaren 16. eta 17. artikuluekin bat etorriz balorazio-irizpideak ezarriz.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 18. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean adierazitako eskabideak, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren pertsona eta erakunde eskatzaileei dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoen arabera. Diruz lagun daitekeen zenbatekoa da, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, dirulaguntza aginduaren 2. artikuluaren arabera diruz lagundu daitekeena.

Hirugarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea III. eranskinean zehazten diren pertsona eta erakundeei, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen aginduak ezarritako baldintzen mendean geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mendean ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2025eko azaroaren 30ean bukatuko da, dirulaguntza horiek arautzen dituen Aginduaren 7. artikuluarekin bat etorriz. Dena dela, diruz lagundutako jarduerek 2023ko urtealdian hasi behar dute edo dagoeneko hasita egon behar dute.

Emandako dirulaguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, aginduaren 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, data hauetarako justifikatu beharko direla:

– 2023an gauzatzekoak diren jarduerak: 2023ko abenduaren 15a baino lehen.

– 2023-2024 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2023an gauzatutako jarduerak, 2023ko abenduaren 15erako, egun hori barne; 2024an gauzatutako jarduerak, berriz, 2024ko abenduaren 15erako, egun hori barne.

– 2023-2025 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2023an gauzatutako jarduerak, 2023ko abenduaren 15erako, egun hori barne; 2024an gauzatutako jarduerak, 2024ko abenduaren 15erako, egun hori barne, eta 2025eko azaroaren 30era arte gauzatutako jarduerak, berriz, 2025eko abenduaren 15erako, egun hori barne.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko, eskabidearekin batera aurkeztu den aurrekontua hartuko da ardaztzat, eta, horrekin batera, aginduaren 23. eta 24. artikuluetan ezarritako gainerako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu honen babesean eman beharreko dirulaguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

– Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren herena ordainduko da, behin 19.a) artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

– Gainontzekoa ebazpen honen II. eranskinean ezarritako zatikatzearen arabera ordainduko da, gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluarekin bat etorriz, herritar orok horren berri izan dezan.

## AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 16a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

# I. ERANSKINA
# ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

I.1.– Deklaratutako Kultura Ondasun ez diren elementuei buruzko jarduerak direlako, eta deklaratzeko espedientea ere ez dutelako ireki, 6/2019 Legearen 9. eta 10. artikuluetako edozein kategoriaren arabera (Aginduaren 2. artikulua):

| Eskatzailea | Jarduera | Zergatia |
|---|---|---|
| Bodegas Baigorri S.A.U. | Puesta en valor y difusión de guardaviñas Baigorri | Ardoaren eta Mahastiaren Paisaia Kulturala kalifikatzen duen 122/2021 Dekretuak babestutako eremuan badago ere, jardueraren xede den ondasuna ez dago Dekretuan zerrendatutakoen artean. |
| Eguiguren Urquizu, Ignacio | Puesta en valor del caserío Zelaiaran | Ez da deklaratutako kultura-ondasuna, eta ez dauka horretarako espedienterik hasita. |
| Inklusart Kultura Integrala | Dantz Point Euskadi | Jarduera ez da ondasun babestuetan garatzen. Proposatutako leku eta eraikin gehienak ez daude deklaratuta, ezta proposatuta ere. |
| Santurtziko Udala | El cedro de la historia | Ez da deklaratutako kultura-ondasuna, eta ez dauka horretarako espedienterik hasita. |
| Santurtziko Udala | Fuente Balparda | Ez da deklaratutako kultura-ondasuna, eta ez dauka horretarako espedienterik hasita. |

I.2.– Babes-araubidearekin bateragarriak ez diren jarduerak direlako eta/edo araubide hori garatzen duen hirigintza-plangintzarekin bateragarriak ez diren jarduerak direlako (biak aginduak ezartzen dituen betekizunak dira, 2. artikuluaren arabera):

| Eskatzailea | Jarduera | Zergatia |
|---|---|---|
| Erribera Dike S.L. | Rehabilitación edificio Nueva Cerámica de Orio, para uso de equip. público, terciario y viviendas | Esku-hartzearen xede den lurzatiak hirugarren sektoreko erabilera du esleitua, eta ez jarduerak proposatzen duen etxebizitza-erabilera. Elementuaren babes ertainarekin bateraezinak diren jarduerak proposatzen dira. |
| Zestoako Udala | Irikaitz Denbora Lerroa Zestoa Pump Track: Zestoako ondare arkeologikoan barrena bidaia | Babes-araubidearen aurkako jarduera, babestutako eremu baten gainean pista batzuk eraikitzea proposatzen baita. |

# II. ERANSKINA

## ONARTUTAKO ESKABIDEAK

| Eskatzailea | Jarduera | Puntuak | Zenbatekoa guztira | Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa | Emandako Zenbatekoa | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aguraingo Udala | Restauración de lienzo de muralla de Agurain | 86,00 | 151.254,92 | 151.254,92 [2] | 116.767,99 | 38.922,66 | 38.922,66 | 38.922,67 |
| Asparrenako Udala | Recuperación y puesta en valor del castillo de Marutegi (Asparrena, Araba) | 85,00 | 184.479,02 | 184.479,02 [2] | 149.559,15 | 49.853,05 | 49.853,05 | 49.853,05 |
| Añanako Udala | Reconstrucción de la Puerta del Caño en la Muralla de Salinas de Añana | 85,09 | 77.650,05 | 77.650,06 [2] | 62.681,51 | 20.893,84 | 20.893,84 | 20.893,83 |
| Balmasedako Udala | Puesta en valor y recuperación del Cerro del Castillo (Balmaseda) | 85,78 | 128.613,63 | 113.615,28 [3] | 109.357,51 | 36.452,50 | 36.452,50 | 36.452,51 |
| Bermeoko Udala | Bermeoko alde zaharra balioan ipintzeko programa. Nardiz tar Jon kalearen egokitzapena | 72,24 | 280.543,90 | 280.543,90 [2] | 162.118,87 | 54.039,62 | 54.039,62 | 54.039,63 |
| Debako Udala | HAB Historiaurreko bailara ibilbidearen 1go fasea bukatzeko lanak, Deba | 80,00 | 188.760,00 | 188.760,00 [2] | 79.677,03 | 26.559,01 | 26.559,01 | 26.559,01 |
| Erandioko Udala | Rehabilitación del conjunto monumental de la Torre de Martiartu. Fase I | 89,2 | 205.179,70 | 205.179,70 [2] | 162.091,97 | 54.030,66 | 54.030,66 | 54.030,65 |
| Ortuellako Udala | Reforma integral de la Casa Consistorial de Ortuella | 73,00 | 2.608.518,17 | 2.545.221,81 [7] | 204.780,55 | 68.260,18 | 68.260,18 | 68.260,19 |
| Santurtziko Udala | Puesta en valor y difusión del Patrim Cult. Vasco en el Fuerte Serantes (como Centro Medioambiental) | 85,00 | 781.995,25 | 781.995,25 [2] | 238.443,11 | 79.481,04 | 79.481,04 | 79.481,03 |
| Gaubeako Udala | Puesta en valor y difusión del Castillo de Astulez, Valdegovía | 85,69 | 57.950,00 | 52.141,99 [8] | 50.135,29 | 16.711,76 | 16.711,76 | 16.711,77 |
| Bergarako Udala | Arrizuriaga kultur espazioa erabilerra berriak integratzeko proiektua 3. fasea | 89,84 | 491.955,62 | 491.955,62 [2] | 250.000,00 | 83.333,33 | 83.333,33 | 83.333,34 |
| Beruala S.A. | Bermeoko harresiaren baliostapena | 80,27 | 18.626,00 | 17.626,00 [4] | 12.353,07 | 4.117,69 | 4.117,69 | 4.117,69 |
| Hierros Servando Fernandez S.L. | Elorrioko Jaraetxea edo Zearsolo-Untzeta Jauregia izeneko etxebizitza eraikina birgaitzeko proiektu | 77,00 | 66.496,50 | 66.496,50 [1] | 57.453,35 | 19.151,12 | 19.151,12 | 19.151,11 |
| Izaskun Badiola Bergara | Fase 2. Rehabilitación Caserío Isuntza Goikoa | 78,91 | 450.760,11 | 450.760,11 [2] | 221.359,36 | 73.786,45 | 73.786,45 | 73.786,46 |
| Arcayako Administrazio Batzarra | Puesta en valor y difusión integral del yacimiento arqueológico de Arkaia en Vitoria-Gasteiz (Álava) | 87,00 | 140.702,67 | 140.702,67 [2] | 137.355,93 | 45.785,31 | 45.785,31 | 45.785,31 |
| Larrabetzuko Udala | Burdin hesia Larrabetzu, Defentsa Lerroko ondarea babestu, ikertu eta balioan jartzeko proposamena | 73,47 | 84.700,00 | 74.523,24 [6] | 57.707,72 | 19.235,91 | 19.235,91 | 19.235,90 |

| Eskatzailea | Jarduera | Puntuak | Zenbatekoa guztira | Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa | Emandako Zenbatekoa | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Maria Carmen Garaizar Axpe | Ayuda económica tanto para obras de rehabilitación y redacción del proyecto de ejecución de obras | 70,00 | 714.998,76 | 714.998,76 [5] | 196.364,89 | 65.454,97 | 65.454,97 | 65.454,95 |
| Maria Teresa De Murga Iznardi | Rehabilitación caserío, antiguo molino | 78,44 | 290.400,00 | 290.400,00 [2] | 211.591,34 | 70.530,45 | 70.530,45 | 70.530,44 |
| Cdad Prop C Mayor 5 Azkoitia | Actuación sobre estructura y fachada del edificio | 70,48 | 86.208,62 | 86.208,63 [2] | 56.315,03 | 18.771,68 | 18.771,68 | 18.771,67 |
| Parrokia San Andres Apostol Eibar | Proyecto de ejecución para la rehabilitación de la cubierta y bóvedas de la Parroquia de San Andrés | 80,00 | 154.207,92 | 154.207,92 [2] | 138.427,54 | 46.142,51 | 46.142,51 | 46.142,52 |
| Parroquia Nuestra Señora de Aranzazu y del Manzano | Hondarribiko Jasokunde eta Sagarrondoko Andra Maria Parrokiako Sakristiaren berrerabiltze museistikoa | 80,00 | 112.560,25 | 112.560,2 [2] | 101.041,75 | 33.680,58 | 33.680,58 | 33.680,59 |
| UTE Idiakez Berria | 2.ª fase de la rehabilitación, consolidación y reutilización de Idiakez Ederra en Nagusia 80, Azkoitia | 80,00 | 2.514.691,40 | 2.514.691,40 [1] | 224.417,04 | 74.805,68 | 74.805,68 | 74.805,68 |
| | | | | **GUZTIRA** | **3.000.000,00** | **1.000.000,00** | **1.000.000,00** | **1.000.000,00** |

[1] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako jarduera guztiak, BEZik gabe.
[2] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako jarduera guztiak, BEZa barne.
[3] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako kapitulu guztiak, BEZik gabe, mahastizaintzako eta ardogintzako paisaia berreskuratzeari dagokiona izan ezik.
[4] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako kapitulu guztiak, BEZik gabe, liburuaren argitalpenari dagokiona izan ezik.
[5] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorreko kapitulu guztiak, obra-lizentzia (BEZik gabe), obraren eraikuntza (% 10eko BEZarekin) eta gainerako kapituluak (% 21eko BEZarekin).
[6] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako kapitulu guztiak, BEZa barne, honako hauei dagozkienak izan ezik: bisita gidatuetarako materiala, bisita gidatuak eta jendaurreko aurkezpena, Story map eta qr eduki digitalak prestatzea eta qr plakak prestatzea.
[7] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako kapitulu guztiak, BEZa barne, ekipamenduarena izan ezik.
[8] Aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako kapitulu guztiek jasoko dute dirulaguntza, BEZa barne, jaialdiari dagokiona izan ezik.

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

III.1.– Agindu arautzailearen 15. artikuluan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa (60 puntu) ez lortzeagatik:

| Eskatzailea | Jarduera | Zergatia |
|---|---|---|
| Azkoitiko Udala | Puesta en valor de San Martin de Iraurgi | 57,50 |
| Elorrioko Udala | Proyecto de urbanización cantón entre las calles Goieta y Elizburu (Santa Ana) Elorrio | 51,82 |
| Mutiloako Udala | Errotatxo eraikina balioan jartzea; Lurlab mobile, adinekoentzat gunea eta herritarrentzako espazioa | 57,50 |
| Rosa y Fernando S.L. | Rehabilitación integral para hotel-restaurante | 57,50 |
| Santurtziko Udala | Adecuación Casa Torre Jauregia | 53,00 |
| UPV/EHU | Zeramikaz fabrika bizia Activación del proceso de puesta en valor de la Nueva Cerámica de Orio | 53,27 |
| Zalduondoko Udala | Dirección de obra y ejecución material para la rehabilitación de la Bolera de Zalduondo | 57,50 |